




ZURE ETXEBIZITZA
GURE KONPROMISOA
TU VIVIENDA
NUESTRO COMPROMISO

2013-2016rako Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea egiteko prozesuan
herritarrek parte hartzeko prozesua


Herritarren arteko 3. inkestaren emaitzak

**ETXEBIZITZA BIRGAITZEA
ETA HERRITARREN PARTAIDETZA**


Birgaitzeko laguntzen lehentasunezko helburua irisgarritasun-elementuek izan beharko lukete (herritarren% 93k aipatu dituzte); ondoren, eraginkortasun energetikoak (% 85), elementu komunek (% 82), eta, azkenik, elementu pribatiboek (% 77)




Herritar gehienaren iritziz, birgaitzeko diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak egokiak dira adierazitako hiru arloetan, baina adierazgarria ere bada nahikoak ez direla adierazten dutenen ehunekoak




Eraikinetako inguratzailerik termikoa hobetzeko lanetarako gehieneko laguntzak egokiak direla uste dute herritar gehienek (% 74)




Herritar gehienek dakite zer den Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (% 57) eta Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzarekin ados daude (% 93)




Herritar gehienek ustez (% 82), beharrezkoa da hiriak birgaitzeko eta berroneratzeko zerga-pizgarriak ezartzea




Herritar gehienek ustez (% 87), interesgarria da parte-hartze prozesu hau, EAEko herritarrek etxebizitzaren inguruan dituzten iritziak eta proposamenak ezagutzeko ezarri dena alegia; hala ere, gehiengoaren ustez (% 74), herritarren parte-hartze prozesuek eragin txikia dute edo ez dute inolako eraginik





Herritarrek parte-hartze prozesuarekin duten gogobetetze-maila altua da, baloratutako alderdiak kontuan hartuz gero: Iritziak adierazteko askatasuna (% 87); erabilitako plataformaren sinpletasuna eta argitasuna (% 80), eta gardentasuna eta emandako informazioa (% 73)




Parte hartzeko sekzio guztiak baliagarriak direla diote: «Eman iritzia – Inkestak» (% 79), «Iradoki ideia berriak – Proposamenak» (% 78), «Dokumentu interesgarriak» (% 76) eta «Komentatu eta hartu parte – Foroak» (% 72)



Herritar gehienek ustez, parte hartzeko prozesu honetan adierazitako iritziek eta proposamenek eragin txikia izango dute Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen azken idazketan (% 75). Nolanahi ere, era horretako prozesuek izaera iraunkorra eduki behar dutela uste dute gehienek (% 55)



Etxebiden izena emanda duten pertsonen % 48 komunikazio irekirako dauden kanalen bidez komunikatzen da erakunde horrekin



Zuzenean zerbitzuko hiru kanalak dira hobekien baloratzen dituzten komunikazio-kanalak: zuzeneko arreta, telefonozko arreta eta Interneteko arreta

